

DOKUMENTU ETIKOA

Batzarrek, bere sorreratik, gizartearen eta politikaren esparru guztietan, norberaren alorrean eta taldearenean, bete behar diren balore etikoei izan behar zaien begirune erakutsi du.

Kode Etiko hau, gure esperientzia luzean, gai honen inguruan, oinarri oinarritzkoak izan diren esperientzietan oinarritzen da, eta aldi berean, azken urteotan gure herrian gertatutako politikaren prestigio galerak, alderdi gehienen jarduera tamalgarriek eta gobernuko erakundearen eredu negargarriek eragindako ikaskuntzak biltzen ditu.

Batzarreko jende guztiak bete beharko ditu ondoren adierazten ditugun puntu guztiak. Horietako edozein ez betetzea huts egite larri edo oso larritzat joko da eta dagokion zigorra izanen du, eta militantzia bertan behera uztera edo Erakundetik kanporatua izatera ere iritsi daiteke zigor hori.

Azken erabaki hau Koordinakunde Exekutiboak (Betearazleak) hartuko du; gaia behar bezala aztertu ondoren, bidezko neurriak hartuko ditu. Zigor guztiak Batzarreko Bermeen Batzordearen aurrean apelatzeko modukoak izanen dira.

Batzarreko guztiak araudi honetako puntu guztiak eta bakoitza bete beharko dituzte. Araudi honetako edozein puntu betetzen ez bada, Koordinakunde Betearazlean hitz egingo da, hartu beharreko neurriak ikusteko.

- Batzarrerako lan egiten duten guztiak eta erakundeetan lanaldi osoz ari diren hautetsiek soldata bera izango dute, eta hau Politika Batzordean adostuko da. Zerbaitengatik, norbaiti soldata jaso behar zaiola pentsatzen bada, hori, gehiengoaz, Politika Batzordean adostu beharko da.
- Kargu publikoek eta Batzarrerako lanaldi osoz ari direnek, soldata bera jasoko dute, nahiz eta hainbat kargu publiko edo pribatu ordaingarritan aritu. 2020an, lanaldi osoko soldata 1680 euro garbikoa da, 14 hilekotan. Edozein aldaketa Kontseilu Politikoaren gehiengoak erabaki beharko du, KPlaren urteko igoera izan ezik, automatikoki aplikatuko baita
- Inoiz ere ez dira norbere gastuak direnak, ordezkapen gastu kontzeptuaren gain zordunduko.
- Kargu publikoak dituzten Batzarreko kideek, ez dituzte haien postuak erabiliko norberarentzat edo alderdiarentzat onurak lortzeko. Gainera, ez dute 2. mailarainoko familiarterako zuzenak izendatzeko biderik emanen.
- Askotan, kargu publikoa izateak, ekar ditzakeen abantaila juridiko, fiskal, ekonomiko edo materialak saihestuko dituzte.
- Erakundeetan lan egiteagatik, inork ez du, ez oparirik, ez ordaindu behar diren ikuskizunetarako doako gonbidapenik onartuko, euren lan instituzionala egoki gauzatzeko ezinbestekoak direnak salbu.
- Apal jokatu dute, funts publikoen bidez ordaindu beharreko garraio gastu, ostatu hartze eta bestelakoetan.
- Batzarreko kide guztiak ustelkerien eta jauntxokerien kontra borroka egiten ahaleginduko dira.
- Batzarreko kargu publiko izandakoek, ate bihurkarien aurkako borrokarekin bat eginez, bere kargua utzi eta hurrengo hamar urteetan, ez du exekutibo posturik onartuko, ordura arte izan dituen ardura politikoekin zerikusia duten enpresetan.

- Batzarreko Koordinatzaile Nagusia, alkateak eta parlamentariak, gehienez ere bi agintaldietan jarrian hautatu ahal izango dira, legealdiak ezarritako lau urteak baino gutxiago iraun ez badu behintzat.

Arrazoi bereziak direla-eta, eta alderdikideetatik % 60 ados egonda bakarrik, luzatuko da agintaldia, soilik beste behin.

- Arrazoi politiko edo etikoengatik, hautetsiek (Batzarreko barne karguetan edo kargu publikoetan) beren kargua utzi beharko dute Kontseilu Politikoaren % 60ak hala eskatzen badu. Zinegotzien kasuan, erabakia tokiko batzarrak hartuko du, irizpide berberak erabilita.
- Urtean behin gutxienez, kargu bakoitzak dagokion esparruetan bere egitekoen berri eman beharko du.
- Koordinakunde Exekutiboaren eta Kontseilu Politikoaren bileren aktak, eskatzen dituen edozein alderdikideren eskura egonen dira.
- Herritar guztiek izanen dute, kargu publiko bakoitzarekin harremanetan jartzeko aukera Batzarreko web orriaren bidez edo posta elektronikoz, bere lan esparruko edozein kontsulta, ekarpen edo kritika egiteko eta hilabete baten buruan gehienez jaso beharko du erantzuna, inguruabarrek hala ahalbidetzen badute.
- Hautetsiak ez dira hautetsi gisa elizkizunetara joango.
- Hautetsiak ez dira animaliak modu iraingarrian erabili, torturatu eta hil egiten diren ikuskizunetara Erakundeen izenean joanen.
- Batzarre karguen hautaketan gardena izanen da eta haietara iristeko gizonezko eta emakumezkoen berdintasunaren alde egingen du.